

## FUNTSEZKO SOZIJETATEA

*Etxedroning* etxez etxeko eskatutako produktua eramaten duen zerbitzua denez, harremanetan egon beharko dugu eskaintzen ditugun produktuen hornitzaileekin.

Batetik, janari zerbitzua ahalbidetzeko, janariarekin zerikusia duten hainbat hornitzaile eta jatetxeekin harremanetan ipini beharko ginateke. Hau da, elikadura-enpresetako hainbat bazkide izan beharko ditugu kontutan, hala nola; McDonald 's, Telepizza, Donga, Crunch, Goiko Grill, Foster' s Hollywood, tabernak, etba.

Bestetik, arropa zerbitzua eskaintzeko, beste hornitzaile batzuekin harremanetan jarri beharko ginateke. Hala nola, Amancio Ortegararekin (Stradivarius, Zara, Bershka, Oysho, Massimo Dutti, Pull and Bear,...), Forum Sport, Decathlon, El Corte Ingles, Pimkie, etba.

Baita produktu teknologiko txikien (telefonoak, musika entzuteko kaskoak, diskoak...) banaketaren zerbitzua ematen dugu, esaterako; El corte ingles, Mediamarkt, Apple, Samsung, etab.

Guretzat enpresa, hornitzaile eta bazkide hauek oso garrantzitsuak dira, azken finean beraien laguntzarik gabe eta beraien produkturik gabe, gure proiektua ez luke ez funtzionatuko ez existituko. Bazkide eta hornitzaile hauek beraien zerbitzuak gurekin konpartitzen dituzte. Beraiek dira beste askorekin batera (langileak, dronak...) "Etxedroning" posible egin dutenak.

Honurak ez dira bakarrik gure enpresarentzat, baizik eta hornitzaile eta bazkideen enpresak ere arrakasta handiagoa izango dute, produktu gehiago eskatuko dituztelako eta eskarien kapitala partekatzen dugulako, beraz ekonomikoki ere positiboa da beraientzat gure enpresarekin lan egitea.